

## LEXIKO-BERRIKUNTZAZ GOGOETAK

*Larraun-Lekunberrin, 1986, Urriak 24*

*Fr. Luis Villasante*

### Sarrera-hitzak

Jaun-Andreak: Egun on denoi!

Laburrak izango badira ere, elkar hizketa edo gogoeta hauen nondik-norakoa azaltzeko hitz batzuk zor ditudala uste dut. Euskaltzaindiak joan den Iraileko batzarrean gogoeta batzuk gaur hemen egitea erabaki zuen. Baina zergatik eta zertarako dira gogoetok?

Alde batetik, euskal lexikoaren alorrean gaur, nolabait esan eta Axularren hitz bat erabiliz, halako irakidura nabari da, sortze berri ugari eta guzitarikoak egiten dira, hizkuntzak dituen premia berriei erantzun nahirik. Eta hori pozgarri da. Edozeinek daki euskarari gaur egundaino izan ez duen bezalako parada eta aukera aurkeztu zaiola; ofizialtasun-maila lortu duen puntutik, administrazio eta irakaskuntzan sarrera izan duen puntutik, administrazio eta irakaskuntzan sarrera izan duen puntutik alegia. Eta horrek berekin ekarri du euskarak zenbait eremutan duen hitzen eskasia erremediatu beharra. Zorionean badira ekinbideak premia larri hauei erantzuteko asmoz sortuak; eta ongi etorriak izan bitez denak.

Baina, beste aldetik, langintza honetan joera eta jokabide guztiz desberdin eta are kontrajarriak ere egotea gerta daiteke, eta orduan eta hortik euskal kulturaren etxegintza hau kaosa bihurtzeko arriskua legoke, hots, dena arriskutan jartzeko moduko kaltea letorke. Eta hori beldur izateko da, zeren gauzak izendatzeko izen ongi aukeratuak, zehatzak eta ongi mugatuak ez baditugu aurkitzen, obra guzti honek porrot egin lezake.

Euskaltzaindiak, bistan da, dena berak bakarrik ezin egin dezake, itsaso hau neurgea eta ikaragarri zabala da eta; baina dena egitetik eta ezer ez egitera ere tarte handia dago, eta berari dagokio, ene ustez, alor honetan erizpideak finkatzea eta lerro nagusiak markatzea, egiten diren lanak gutxienezko batasun bat izan dezaten.

Euskaltzaindiaren barnean bada Hiztegi-batzordea, Gramatikaren batzordea den bezalaxe. Hiztegia eta Gramatika dira, zalantza gabe, Euskaltzaindiaren egiteko nagusiak.

Gaur gurekin ditugu hemen Hiztegi-batzorde horren buru den Mitxelena jauna, buru ordea den Ibon Sarasola jauna, batzordearen idazkari den Mikel Zalbide jauna, idazkari ordea den Ricardo Badiola, etab.

Mikel Zalbide jaunak aspaldidanik egina du epe luze eta laburrerako plangintza bat, hots, euskarak alor honetan eskuratu edo lortu behar dituen xedeen plangintza, noiz zer-i heldu beharko zaion adieraziz. Plangintza hau behin baino gehiagotan azaldu du berak Euskaltzaindiko batzarreetan eta onartua izan da. Orokorreko gain-begiratu hauek uste dut onurakor eta are beharrezkoak ere ditugula une honetan, gauza bat mugaz kanpo edo goizegi edo beranduegi egin nahi izatetik letozkeen kateak ahal dela gibelarazteko, eta langintza honetan funtsezko eta oinarrizko koordinaketa eta batasuna gorde dadin.

Dena labor bilduz, gaur bada alor honetan, berriz ere Axularren hitza hartuz, irakidura bat, borborrean eta pilpilean dagoena, baina bai nahastekak ere, eritzien eta joeren multzutasun eta desberdintasunetik heldu direnak. Ahal dela, koordinaketa baten barnean egin behar lirateke gauzak, eta hain zuzen, horregatik, gogoeta batzuk Euskaltzaindi eta lan honetan dabilzanan artean egin behar zirela pentsatu zen. Horra, bada, zergatik eta zertarako diren bilera hauek.

\* \* \*

Euskaltzaindiak behiala, 1959an, euskal hitzei buruz agiri bat eman zuen. Ikus **Euskera** (1959), 216-217. Gehiegizko purismoaren kontra eman zen adierazpen hura. Han emandako erregelaren arabera —eta berau da, noski, munduko hizkuntza guztiek arazo honetan darabilten araua— hizkuntzan erroztatuak diren hitzak etxekotzat jo behar dira, hitzen jatorri edo etorkiari begiratu gabe. Purismoak jarritako hertsikeriatik hizkuntza salbatu nahiez, eman zuen Euskaltzaindiak agiri hura.

Baina ordutik hona joerak neurri batean aldatu egin dira eta orain boladan dagoen joera agian bestelakoa da. Badirudi gaur zenbaitek errazegi jotzen duela maileguetara. Eta hori bakarrik balitz, gaitzerdi. Maileguetara behar denean jotzea zilegi da, noski, baina hitzok nondik eta nola hartzen diren ere beharko da jakin. Askotan gaur gaztelaniatik zuzenean hartzen dira, eta hori egitean ez gara ohar-tzen euskaldunen artean batasuna egin beharrean, berriz ere leizea sakontzen ari garela, euskara gaztelaniaren morroi bihurtzen dugula eta Iparraldeko gure anaiekin lokarriak moztzen ditugula.

Hori gerta ez dadin, badirudi, maileguak hartzerakoan urrunagoko edo goragoko iturri bat, adibidez latina, abiaburutzat hartu behar genukeela, nahiz eta latinezko forma ere zenbait aldakuntzarekin hartu. Hor, goragoko iturri horretan, bat etor gaitezke hango eta hemengo euskaldunak, horrela geure-geurea den bidea moldatuko genuke, eta frantsesaren eta ez espainolaren ereduari lotu gabe.

Eta ez da ahantzi behar hitz berriak sortzeko, maileguez gainera, euskarak badituela beste bi bide, hots, hitz-elkarketa eta hitz-eratorpena. Euskaltzaindiak ez du uste hiru bide hauetatik bat ere euskarari ukatu edo debekatu behar zaionik. Hizlari eta idazleek kasu konkretuetan hiruetara jotzeko aukera dute. Baina berrietaz ongi baliatzen ere beharko dute ikasi. Eta noiz zein bide hartu behar den erabakitzea neurri batean bakoitzaren eskumenean gelditzen da.

Azken urteotan Euskaltzaindia hiru bide hauei buruz arau gidari batzuk agertu nahiez dabil. Maileguzko hitzei buruzkoak emanak eta liburuska batean bilduak dira jadanik. Bertan adierazten du Euskaltzaindiak mailegu berrietan bere uestez hartu behar den bidea zein den. Orain hitz-elkarketaren alorrean lan beretsua egin nahirik, hartako batzordea lanean hasi da. Eta lan hau burutzen duenean, eratorpenaz gauza bera egiten hasiko da.

Jakina, honelako itsaso neurgean ez da posible dena lotzea edo salbuespenik gabeko arauak ematea. Hauxe izan nahi dute, bada, Euskaltzaindiak eman nahi dituenak: "arau gidariak". Bide zabal batzuk markatu nahi ditu, lan guzti hau batasun baten barnean egin dadin.

Orotariko euskal hiztegia aurrera doa. Lexiko Erizpideen finkapen-lana ere bai.

Baina hitz berrien sorkuntza-lanean nola edo hala sartuak daudenen joerak ahalez hurreratzeko, eta bakoitza bere aldetik ibil ez dadin edo muga baino lehen edo geroago lan bat egiteak dakarkeen gaitza aienatzeko, pentsatu da agian on zitekeela mahai baten inguruan elkar hizketa hau egitea; ez inori lana galerazteko, noski, baina bai batasun zabal baten barnean eta koordinaketa batekin lan hori egiteko; hori posible dela ikusten baldin bada, behintzat.

Akademiak ez du inortxoren lana bazterrera bota behar dela uste. Ongi daki guztion beharrean dela hizkuntza. Esan dezagun, aitzitik, bakoitzari bere lekua bilatu nahi diola, horrela guztion lana baliagarriago gerta dadin.

\* \* \*

Ez dira, gainera, lehen aldikotz egiten honelako bilkurak. Honen aurrekoak Hondarribian egin ziren 1981. urteko azken egunetan. Ikus **Euskera** (1982), 263-271. Ea oraingo honetan beste urrats bat egiten dugun.

Bukatu baino lehen, ez dut isildu nahi, goitik, Eusko Jaurlaritzan euskal arazoen arduradun denarengandik heldu dela eskea. Goitik edo kanpotik agian hobekiago ikusten da gure sakabanatzea eta gaitz horri sendabide ipini beharra. Nik neure aldetik erregu egin diot berari hemen hitz batzuk esan ditzan. Horrela guztiok jabetuko gara gogoeta hauen helburu eta garrantziaz. Beraz, Mari Karmen Garmendia andreari emanten diot hitza.